

DEFINIZIOAK

ONTZIEN AITORPENAREN ESTADISTIKA (090224)

Ontzia

Ontzia da edozein materialez egindako produktua, baldin eta merkatugaiak eduki, babestu, manipulatu, banatu eta aurkezteko bada; merkatugaiok, besteak beste, lehengaiak zein amaitutako gaiak izan daitezke, fabrikatze, banatze eta kontsumitze katearen edozein fasetan. Baita helburu horretarako erabili ostean botatzeko gai guztiak ere.

Alegia, kontsumitzaileak edo azken erabiltzaileak merkatugaia garraiatzeko dendetan eman edo eskuratutako erabilera bakarreko poltsak, eta ontzien helburu berbera duten botatzeko gaiak, esaterako, erretiluak, platerak, edalontziak eta produktua emateko, erabiltzeko edo zuzenean kontsumitzeko bereziki ostalaritzan eta jatetxeetan erabiltzen den botatzeko beste edozein gai.

Etxeetan erabiltzen diren ontziak eta industria-edo merkataritza-ontziak hartzen dira kontutan.

Ontzi-hondakina

Jabeak baztertutako edo indarreko arauak baztertzerantz behartzen duten edozein ontzi edo ontzi-material.

Ontzi-hondakinen kudeaketa

Ontzi-hondakinak jaso, sailkatu, garraiatu, biltegitatu, balorizatu eta ezabatzea, operazio horien eta deskargatzeko lekuen zaintza (behin itxita) barne.

Birziklatzea

Ekoizpen-prozesu baten barruan, hondakinak eraldatzea, hasierako xede bererako edo beste xede batzuetarako; prozesu horien artean, konpostajea eta biometanizazioa daude; ez, ordea, energia berreskuratzea dakarren errausketa.

Ildo horretatik, hondakindegia lurperatzea ez da konpostaje eta biometanizaziotzat joko.

Balorazioa

7/2022 Legearen II. eranskinean aurreikusitako edozein operazio.

Ontzi-hondakinetatik eskura daitezkeen baliabideak aprobetxatzeko aukera ematen duen prozedura oro (energia berreskuratzea dakarren errausketa barne), betiere, horietan ez bada giza osasuna arriskuan jartzen eta ez badira ingurumenerako kaltegarriak izan daitezkeen metodoak erabiltzen.

Energia berreskuratzea

Beste hondakin batzuk erabilia edo erabili gabe, zuzeneko errausketaren bidez, ontzi erregaiei hondakinak energia sortzeko erabiltzea, baina beroa berreskuratuta.

Ezabatzea

7/2022 Legearen III. eranskinean aurreikusitako edozein operazio.

Ontzi-hondakinak biltegitratzea edo kontrolpean isurtzea nahiz horiek erabat edo partzialki ezabatzea (errausketaren bidez edo energia berreskuratzea ez dakarten bestelako metodoen bidez) helburu duen prozedura oro, betiere, horietan ez bada giza osasuna arriskuan jartzen eta ez badira ingurumenerako kaltegarriak izan daitezkeen metodoak erabiltzen.

Berreskurapen/Balorazio tasa

Berreskurapen portzentajea, energia berreskurapena barne, 94/62/EE Zuzentarauaren 6. artikulua 1. idatzi-zatiaren arabera: zutabea (h)/zutabea (a).

Birziklapen tasa

Birziklapen-portzentajea, 94/62/EE Zuzentarauaren 6. artikulua 1. idatzi-zatiaren arabera: zutabea (d)/zutabea (a).